

Funtsezko baliabideak

Gure enpresaren funtsezko baliabideak osatzeko, hainbat motatako baliabideak zehaztuko ditugu, gure proiektua era egokian aurrera eramateko:

- **Baliabide fisikoak:** gure produktua osatzeko beharrezkoak diren materialak, hala nola eguzki-plakak, berogailua, tresneria edota burdina...



- **Baliabide-intelektualak:** proiektua aurrera eramateko behar diren jakintzak, gai bakoitzari buruzkoak. Taldekide bakoitzak proiektua gauzatu ahal izateko ideia desberdinak proposatuko ditu, gure trebetasun eta alde txarrak kontuan hartuz



- **Giza-baliabideak:** taldea osatzen duten lau pertsonok osatuko duguna, eta behar bada, langile edo aliatu gehiago kontratatzea.



- **Finantza-baliabideak:** gure produktua sortzeko beharrezkoak diren lehengaiak ordaintzeko behar den dirua. Hasiera batean taldekide bakoitzak 3.000 euroko aportazioa egin beharko du.

